

Eibarko Udalak workshops proiektuaren barruan litofaniak eratzeko eta sortzeko tailerra sortu du. Litofania tradiziozko teknika praktikan jarriko dugu gaur egungo baliabide berriak diren inpresora 3D eta processing ingurua erabiliaz.

**Tramitatzailerak:** garapen ekonomikoa, berrikuntza eta enplegu saila

**Hartzaileak:** helduak

**Ikastaroaren prezioa:** dohainik

**Eskaera egiteko tokia:**

Juan San Martin Liburutegian. Portalea.

**Nork emango du:** ARQUIMAÑA

**Non eta noiz:** Armagintza museoan

**Datak izen emate orrian aukeratzeko:**

uztailaren 15ean edo 16an

16:00etatik 20:00etara

**Ikasle kopurua:** gutxienez 6 ikasle, eta gehienez 12 ikasle

**Eskaera egiteko epea:**

2014ko ekainaren 30etik uztailaren 9ra (biak barne)

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.net](http://www.eibar.net), eta liburutegian eskuragarri).

**Kudeaketa arauak:**

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.net](http://www.eibar.net)), **2014ko uztailaren 11ean**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2014ko uztailaren 11ean 13:30etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiak zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **2014ko uztailaren 11tik** aurrera.

Informazio gehiago: 943 708 437 telefonoan (Asier)